



PRENTSA-OHARRA

Sektorearen susperraldia sendotzeko 2022. urtea funtsezkoa dela adierazi dute

bilbaoDendak-ek eta Kutxabankek tokiko negozioaren lehiakortasun digitalaren alde egiten dute

- **Pandemiak sustatu dituen erosketa- eta kontsumo-ohitura berriei erantzuteko neurriak eratzten ditu lankidetzeta-hitzarmen berriak**
- **bilbaoDendakek bultzatzen dituen sustapen-jarduerak lagunduko ditu Bankuak, hala nola Bilboko merkataritza sariak edo jasangarritasunera eta digitalizaziora bideratutako kanpainak**

2022ko urtarrilaren 12a. bilbaoDendak eta Kutxabankek lankidetzeta-hitzarmen berria sinatu dute, egoera ekonomikoaren pixkanakako suspertze-testuingurua aprobetxatzen tokiko negozioei laguntzeko hainbat neurri eratzten dituen.

Hitzarmena sinatzen izan dira **Rafael Gardeazabal**, Bilboko merkataritza eta turismoa sustatzeko plataformako lehendakaria, eta **Xabier Solaeche**, Kutxabankeko Bizkaiko Xeheko Sareko zuzendaria.

Sektoreak aurre egin beharreko erronketako bat bere negozioen iraunkortasunari eustea da digitalizazio handiko ingurune batean, non urruneko salmentak gehiago zabaldu diren pandemiak eragindako kontsumo-ohitura berrien ondorioz.

Hori dela eta, bi aldeek irtenbide espezifikoak ematea adostu dute, bezeroekiko **komunikazio- eta salmenta-kanal berriak** bultzatzeko, negozioetarako diseinatutako tresnen bidez, baita ordainketa digitaleko sistema berriak ere.

bilbaoDendak elkarteko lehendakaria den Rafael Gardeazabalen iritziz, kontuan izan behar da “Bilboko merkataritza eta ostalaritza funtsezko sektore ekonomiko bat direla hirian, aberastasuna, enplegua eta jarduera ekonomikoa sortzen dituela, iraunkortasunaren ikuspegiarekin”; horregatik, funtsezkotzat jo du “Kutxabankek gure kontsumitzaileekin konektatzeko neurriak eskaintzea, bezero esperientzia hobetuz”.



Xabier Solaecheren arabera, pandemiak erakutsi du “0 km-ko merkataritzaren digitalizazio-prozesuak ere abantaila handiak eskaintzen dizkiola kontsumitzaileari, horrela betiko konfiantza eta segurtasunarekin erosten jarrai dezakeelako –eta jarraitu nahi duelako–, betiko establezimenduetan, eta orain edozein tokitatik, gainera”.

Salmenta arin, berehalako eta eroso egiteko formula berriak

Sinatutako hitzarmenak salmentak errazteko tresnak finkatzen ditu, eta horien artean **‘Kutxabank Bizum Negozioak’** sistema, Bizum ordainketa-plataformaren teknologian oinarritua, nabarmentzen da. Finantza-erakundearen irtenbide aitzindari honek aukera ematen die saltokiei eta profesionaleri hilean eragiketa-kopuru mugagabea egiteko, erosketa bakoitzeko gehienez 10.000 euroko zenbatekoarekin. 'Kutxabank Bizum Negozioak' aurrez aurre edo urrunetik kobratzeko erabil daiteke.

bilbaoDendak osatzen duten bazkideen lehiakortasuna hobetzeko helburuarekin, Kutxabankek beraien esku jarriko du Saltegi Kredituak barne hartzen dituen finantza-produktuen eskaintza zabala. Banku-taldearen kontsumorako maileguen dibisioak (Kutxabank Kredit) azken bezeroari aukera ematen dio erosketak Saltegi Kredituaren bidez finantzatzeko; horren ezaugarri nagusia da izapideak eta paperak alde batera uzten dituela eta establezimenduan bertan egiten dela.

Era berean, elkartutako saltegien eskura jartzen du ‘plazox’, txartelarekin egiten diren erosketak zatikatu egin daitezkeelarik ordainketaren unean, oso modu errazean.

Eskaintza osatzeko, **negozio hipoteka-mailegua** dago, negozioak ezarriko diren higiezinak erosteko, edo negozio mailegua, zirkulatzailer-premiei erantzuteko edo ekipamendu profesionalaren erosketa finantzatzeko, altzariak, makinak, ... garraio-elementuekin batera.

Halaber, bilbaoDendak osatzen duten negozioek, beren negozioen eguneroko kudeaketa errazteko bereziki diseinatutako produktuak izango dituzte, hala nola **Negozio Kontua** eta **arriku anitzeko aseguru**a, bereziki merkataritza-establezimenduetara bideratua, baita kolektiboko negozio eta saltegienez, renting eran, ibilgailuen eskaintza lehiakorra ere.



Finantza-abantaila ugariekin batera, bilbaoDendakek sustaturiko enpresa-sustapen eta -animazioko ekimenei laguntzeko ildoak mantentzen ditu akordioak, hala nola **merkataritza sariak** edo **'Hemengo Shopping'** proiektua. Era berean, hondakinak bereizi eta birziklatuz **ingurumen-sentsibilizazioko** kanpainak sustatuko dira, baita negozioen **lehiakortasun digitala hobetzera** bideratutako jarduerak ere.